Tem pto gure Jauna, gure viotzetan sartu guzazic, bialt cen deuscu Sn Juan Bautista, esatera, zucendu daiguzala videac, aren misericordiaz gure miserien bitartean, muralla bat leguez dagoecen impedimentuac quenduaz. Embarazu edo impedimentu oneec cer diran, gauza jaquiña da, N. F. Dira, bada, gure utseguinac, edo bicatubac, penitenciaz garbitu bearguen quiunac, eta garbitcen eztituguinac. Dira gure pasio edo inclinacio gaistoac, ceñei gure viotzac virtutien armaquin guerra eguin bearreanz euren esara jarraitcen deuteri. Dira gure garbitasuna, edo inocencia galdu euben ocasioac, eta becatubagan dic iguez eguin bearrean, gueure zorio gaistoan guezoc billatcen dituguinac. Berba baten, Jaunari gure viotzetan sarrera emoteco, modu bacar bacarra da gure vici modua aldatcea, eta viotz osotic beragana viurtcea. Guztioc aitortcen dogu erraz, gure salvacioco equitecoa dala, mundu onetan izan aldeitequian equitecoric bearrena, edo obeto esateco, equiteco baca rra; bada convertitcean, edo ez convertitcean dago gure betico zoriontasuna, edo betico zorigaistotasuna. Baña, oh! ichutasun negargarria! gure obretara bequiratu ezquero, esan deiteque ezta ba importancia guchiagoco equitekoric, au baño; bada izanic guizonac ain contu andicoac beste gauza guztietan, nun eztituben ichiten guezoco; bacar bacarric conversioco equiteco au, da beti guezoco ichiten dana. Beste gaucetaraco ezta izango guezoco dempora ric, baña onetaraco nois nai da dempora. Ez gueugue bada, dempora gueure escuban baguenco ere, confianza andiagoaz ichico, ichiten dogun baño beti guezoco Jaungoicoagana viurtce

au. Dempora da Christauba, iratzanteco pecatuaren lo piru orretatic. Dempora da, Jesuchristo bere ministroen agotic ari jazula esaten, ez luzatceco Jaungoicoari pagatcea; dempora da paraje santu onetatic aditcen dozula, penitenciaric eguiten ezpadozu, galduba izango zariala betico. Ta ezta contentatcen Ministroen agotic bacarric mundu gustien aurrean esanaz; gañera verba eguiten deutzu zeure viotzaren barrenetic zuri bacarric gau ta egun, bein ere aspertu gabe. Ezta ya dempora, esaten deutcu, urtetceco becatu loi orretatic, ceñetan zagocen sepultaduric? Ezta ya dempora ceure buruari descanso pusca bat emoteco, eta orraco pecatuaren inclinacino, edo pasio gaisto ori ceure viotzetic ataratceco? Ezta dempora ezagutceco, cein esquer gaistoa emon deutzun munduac, zuc agatic eguin dituzun alegquina gustiac gaiti, ta cembat obeto pagatuco deutzun, bera servitcen eguiten dituzun nequeac? Oneec dira, nere Christauba, Jesusec zure barrenean esaten deutzun gauzac, zure viotzean sartu guraric. Bai Christau pecataria, ecin ucatuco dozu. Oneec dira, zuc ceure barrenetic aditcen dituzun erazoiac; ta zuc cer erantzuten deutezu itaune onei? Ez bada, bisar convertituco nais, guero eguingo dot penitencia. Da esatia; gueruago mundu baz obeto aspertuta, pasioac aimberte indar eztauquenian, dempora obia izango dala Jaungoicoagana viurtceco. Au da, N.F., becatari gustien achaquija, ta au cein ezereza, ta negargarria dan, aditcera emongo deutzubet.

Gauza icaragarria da N.F., gueure beguien aurrean iraoten dana: Izanic gure viija ain laburra, eriotzaco orduba ain guchi jaquina, dempora eta instante gustiac ain valio andicoac, eriot

zac uste baño lenago artcen dituben̄en exempluac aimberte, ta azque
nic ain izugarria, penitenciaric eguin baga illtcen dirancen ondorea,
orregaitic guizonac billatcen dituela aitzaquia: euren vicimodu gaiz
totic oneza izultceco: gure vicija, honra, edo gure gauzac arquitcen
diranian peligruren baten, erremedioac berala aurretic ifintcen dira,
peligrua gugandic beti urrin dabil, eta salvaciñoco eguiteco onetan
contrara peligroa burruen gañean daucagu, eta erremedioac gugan
dic urrin. Esan leique, gure salvaciñoa gure nai izatian dagoala,
edo gure vicija gure escubetan daucagula gura dogun arteco,
edo penitencia eguiteco lecuba gueroco Jaungoicoac aguindu
deuscula; eta oraindic gueiago arritzecoa dana; gustiac conformat
cen dira convertitceco, gustiac aitorteen daube ecin izan deitequeala
desgracia andiagoric pecatu mortalbeco estaduban eriotzac artceia
baño, ta orregaitic gustiac valiatcen dira aitzaquia ezer ez batzuc
quin euren penitencia edo conversiñoa luzatceco. Gastetasuna, pasioac,
eta vici modu barri baten ondoreac, dira pecatariac ifintcen dituan
dificultadeac, Jaungoicoac aguintcen deuscun leguez, ez convertitceco.

Lenengoa da gastetasunaren aldetic. Uste oi dala, eztala dem
pora eguguia; munduari ichi, eta munduaren barri icasi gabe
vici modu erretiratu, eta serio bat artceco, conveni dala, demporari
ichaitia gastetasunaren loria pisca bat iragoartian, munduac
aimberte guerra eguingo ezteuscun artian, gure pasioen suba
piscabat beintzat itzungui artian, costumbre serioac obeto diru
dien artean; orduban bai, esan oi daube Jaungoicoagana chit sarrico
guerala, ta orduban gure propositoac firmeac izango dirala. Baña
erren agora datort, eguin bear deutzudan itaune bat: Noc esan
deutzu Christaubá, eldüco zariala, zuc orren arnu andian artcen
dituzun dempora orretara? Noc esan deutzu, eriotzac ezabelaarturo
[illegible] pasioentzat oraindic gordetcen dituzun urte
munduarentzat, eta pasioentzat oraindic gordetcen dituzun urte
orien ordian? Ta zuc arrachean, au da zarzaroan esperatcen dozun

Jaun ha, etorriro etzazula ceure vizitzaren contu artcen goicean, au da gastetasunaren loza lorean? Uste dozu zure gastetasun olasun zu orren bildur dala? Ah zorua! nola ichuturic zaucan becatubac! Egunezo experimentatic ez bacarric mundu gustian guentatcen danac, ezpada zure ezaguneetan, zure adisquidietan, zure aideetan guentatcen danac, exacutci deutzu, nola guchien uste eubenian, azquitu dizan Jaun goicoaren Tribunalian, eta biarbada zue orain dazabiltzun guero-co convertitceco asmu utz andi orietan, ta orregaiti gogortcen zara, zure concienciaco arrac ain exemplu tristiaquin emoten deutzun ozca aien contra, edo obeto esateco, ichiten dituzu ceure belarriac, Jaungoicoaren aviso ace ez aditceco. Baña beguira eguizu, mire zable senngabea, biarbada biyar, edo gaur bertan ceure animaaren contua emon bearco dozu; ta nola guentaturic aurquitcen zara? Cer servitu eusten zure lagun, adisquide, ta aide aci guero conver-titceco asmoac? Ta cer servituco deutzu zuri, guerta ditequian leguez, eriotzac artcen bazau? Guero convertitceco asmu andi oriec etzaube libratuco Ynfernuco tormentu icaragarri aetatic.

Baña eguin daigun contu eriotza etzazula eltcen ceure gastetasunian, ichiten deutzula zarzarora; ta noc esan deutzu, edo cer motivo daucazu, edadiac viotza mudatuco deutzula pensatceco? Aventuras edadiac mudatu eben Salomon Erreguearen Viotza? Ordu ban aren deshonestidadiac igo eben aimberteraño, nun aren pecatu lotzagarriac caburic etzuen. Gastetan merezci izan eben Jaungoicoa ganic aimberte Jaquituria, bere contuco gentia gobernatceco, nun escritura Sagradubac dioanez, arteraño izan etzan, eta izango bere eztan bein ere ain jaquintzuric, ta Jaquituria onen parera, logratu cituan Erreguebatec mundu onetan descatu leiquian gauza gustiac; bada logratu eben, izanic bere contuxa ecin conta ala gente, guztiac baque osuan egotea batere guerraric gabe; logratu eben aimberte ondasun, nun Jerusalenen dempora artan

edarra ebillen arrija leguez, ta onec ezer eztirala, logratu eben Jaungoicoac bere agotic verba eguitea guchienaz irur aldiz: Baña guizonaren ecer eztaruna! Noze pensatu bear eben, Salomon batec, ichiric Jaungoico eguiazcoa, Ydoloac, edo aen figura diabruoa ado ratu bear ebela? Bay N.F., bere pariai emon eutsen libertade osoa, ta Jaungoico faltsoai adoratcen cituen emacume batzuec ichutu euben aren saguitunia guztia, ta obligatu euben euraac leguez Diabruari incensua emtera; eta noiz ute dozube? ikentuzaz gartetasunaren erdian? ez pecataria ez; zuc, zure pariaen suka ichunguico sazula, ute dozun demporan.. Berroguetan bost edo amar urte bacituan, be catu lotzagarri aetan Saldi frenu gabe leguez irudiritu edo navar mendu zaneco. Edadian aurretatua zan Saul Errequia bere lenaggco urt eguitiai erantzi eustemian superticioa, biotzeco gogortasuna, eta asquenic desesperacioa. Edadian aurrezatuac ciran Herodias, eta Jetzabel ere, batac bere alabari aguindu eutzanian escatu eguiala Sn Juanen buruba, eta bestiac Eliseo Profeta illtceco juramentua eguin ebenian; baña orduban iñoz baño ariñaggoac, andi naiagoac, becatariagoac, eta munduari agradatu naiagoac izan ciran; ezbada pensatu edadiac mudatuco deutzubela viotza; guentaliteque, gartetasuneco deshordenaren batzu tatic edadiac apartatcea, cegaiti leen leguez gustoric ezjaten arrtcen, edo cegaiti munduben beguietan bateri bere estimacioa galdu sacon; baña au gusti an erta asco; eguiaz convertitceco lenaggco vicio eta ostura gaistoen zarac ezpadira viotzetic ataratcen virtute contrariuen obraquin, conversioa erta eguiazcoa: urtiac eguiten daubena da, gartetasunian egoan Jaungoicoaren bildur pusca ha quentceia, eta viotza gogortcea. Yfini eguizu bé beguiac munduco persona zar ascotan, edadiac bacarric mun duco desordenetatic ta gustoetatic apartatu dituenetan, ta icusico dozube, munduaganaco aficioa eztala illtcen euraequin batera

baño; icusico dozube gusto andiaz acordatcen dirala gartetarunaz, ta orduco diverziñoa desventurau betan. Aiquenic icusico dozube, mundu ben igucri leguez, aec munduaren atrian duacela, ta munduac beragana turic daucala, alaco moduz, nun bera gabe iñola eze vici eguin diran. Baña esango dozube bearbada, gure zori gaitoean jarraitu deutsegu munduari eta pasioai; oneec eguindira gure viotzen jabe, ta agaitic gauza bearra da dempora purça batean beintzat, au da paso oneen suba itzunguin artian ichaitia, ta au da pecataren bigarren iguez videa. Baña emen eguin daiquet pichi gorabera lengo preguntia bera; Noze errevelatu edo aguertu deutzu, orain convertitcea eragotzen deutzuben pasio oneec izan bear dauben izaufena. Ysini deuste iñoze neurrizen bat, Jaungoicoac icharoco bagai ifini euten leguez? Esan deuste iñoze, oncrano etorrico zare, baña aurrerago ez? Engañatcen zara bada oidi erditic, pensatcen badozu, zure pasioac mudatuco dirala euren cabuz, zuc virtutiaquin guerra eguin gabe; eta bi bider engañatcen zara, uste badozu pecatua pecatuaren gañean eguinaz au logratuco dozula. Da eguarra emonaz, suba itzungui nai izatia. Cer izan deiteque bada zoraqueria andiagoric, Zauri, edo erida peligroso bat erremedioric eguin gabe bere cabuz sendatuco dala ustea, edo erremedioac eguiteco zartuta, dempora egoquiagoa izango dala pensatcea baño? Baña edadiac viotza mudatuco baleu ere, ta baceuco seguridadea, edo Jaungoicoaren baimena, zarzarora allegatceco, ondo eguingo ceu quiala deritzazu munduaren erara gartetarunian vici, ta converssioa zarzarora ichijagaz? cer bada; ezta Jaungoicoa dempora eta edade gustien jabe? Venturaz bago urtean eguinic, edo egunian orduric Jaungoicoari zor eztéutzaguenic? oneec ohela izanic; cergaitic quentcen deutzazu bada zure viziaren par teric onena Jaungoicoari, Diabruari ta aren obrai consagratceco?

onelacoari gartetaruna gauza valio andieguicoa inuditcen jaco, finic eztaucan gloria miragarri ha izabazter gastatceco; ta ezteutzo emoten Jaungoicoari viciaren azquen eta pasioen ondarra baño. Au da Jaungoico arrizco ez ecuri, ta ezaditu eguiten eztabenari leguez beguiratcea.

Jauna, esangodozu, jauri nas contuban, nere oitzaquiac erraz zoe bague dirala, engañaturic egon nacela sinisturic, zarzaro an obeto convertiduco ninzala, ta orduban pasioetatic libre egongo ninzala; baita ere ezagutcen dot munduaren eta emengo gustuen ecer eztaruna, eta contrara Ceruaren anditaruna, ta agaitic gura neuque mudatu nere vici modua, gura neuque virtuteco videan sartu; baña bildur naz, virteco videan aurquitcen diran aldapa edo dificultadeac ecin igaroaz, lenero vici modu triste onetara viurtu ez nadin. Ona N.F., azquenic, pecatariac vici modu barriaren ondoreen aldeti ifintcen dituban dificultadeac Jaungoicoagana ez convertitceco.

Jaquin eguizu bada, amesetaco dificultade orreic andiagoac izango dirala guerruago, pecatuac barruago sustraiac bota daguianian. Bildur zara leneco vici modu tristera viurtuco ote zarala. Baña ar onela izanic ere, pasatuco dozu dempora pucaren bat Jaungoicoa ofenditu gabe: beintzat eguingo dituzu aleguinaren batzuec, Jaungoicoaren asarre justoa aplacatceco, ta empleatuco ditu zu egunen batzuc, bere izen santuba bedeincatcen; beintzat eran ceiquio Jaungoicoari; Jauna icusten dituzu nere deseo ta aleguinac zugana viurtceco, baña ecin dot; nere viotza Jauna mudacorra da, pasioen edocein aiec badarabill batera ta bestera. Quendu eguiozu Jauna munduari, nere viotzaren gañean dau can aguintza; aimbeste vider sinistu dot nere asmuac firmiac

izango zirala ta beste ainbeste biden engañatu nas. Errugui zaites Jauna neure estadu peligroso onegaz, bada viotz mudacor onec icaratcen nau. Badaquit, au dala, condenacioco señale claruba, ta madaricatcen dozula ceure liburu Santuetan viotz mudacorra; baña dempora onetan daquit, Jauna, eztala galduco zu deveras villatcen zaben anima. Esperanza onegaz gura dot ari bertatic, zuze vide Santuetan ibiltcen zure billa, topaduzaidan seculaco glorian. Amen.

FUNDACION
SANCHO EL SABIO
FUNDAZIOA
MAN 685